

Euskal Eliz barrutia

Deia, 1978-01-08.

Aspaldi hontan, apaizekin ari naiz elkarrizketak egiten.

Norbaiten iritzirako, Eliza gehiegi.

Eta ni, ados. Ba dira Elizatik kanpo hainbat gai eta gizon beste hainbeste arreta merezi duenik. Baina ez dakit konturatzen garen, politika aldetik Espainiako estatuari eskatzen eta esijitzen ari garen pareko asko dugula gure herrian Elizari esijitzeko.

Eliza gure herrirako garrantzidun zerbait baldin bada behintzat.

Eta nik uste, ba dela.

Aurretik ibili izan dutan bidetik nabil orain ere: testigu bila. Kazetariak berak ba ditu bereak diren iritzia, baina gaiak berez argitzen zailak direnean zuzen da gure herriko gizon ezagunen eta errespetagarrien bidez ematea. Batetik, kredibilitatea gehitzen da; bestetik, merezi duen gizonak aitatzeko bide bat da, oraindik, gai batek dituen alderdiei berez izan behar duten argi bila joateko modua.

Hala, lau izan dira orain arte agertutakoak: Anai Gines, lasalletarra; Jokin Zaitegi, josulagun izan eta orain apaiz dena; biak atzerrian egonak, Manuel Lekuona, herrian bertan gordeta bizi behar izan zuen apaiz agurgarria; Jose Maria Setien, gotzaia.

Eta ez dut oraindik bukatu.

Lehenengo biak erakutsi dizkigute Franco-ren menpean egondako Elizak nola atzerriratu eta atzerrian bertan ere nola jokatu duen; hirugarrenak, don Manuel-enak, xehetasun batzu jarritz, ongi aski adierazi digu Eliza, hemen Franco-ren mendeko agertu zena, eta Euskalerriko Eliza, hiru direla eta ez direla nahastekoak; eta gotzai jaunak ere argitu dizkigu, nik uste, gaur Euskalerraren aurrean Elizak duen aurpegiaren hainbat alderdi.

Nere asmoa argi dago: Euskalerriak merezi du gaurko elizaren egitazko erantzun argi bat.

Don Ramon de la Sota jaunak esan zidan elkarrizketa batean, Elizak ez ziola gure herriari Ama batek bere semeari ematen dion tratua eman, Ugazama batena zirudiela.

Gogor xamarra irudituko zitzaion batzuei, baina da du imajen honek giharrik.

Elizak bere aitortzen dituen herrietatik, ez dira asko izango proportzioz Euskal Herriak hainbat menpetasun eta maitasun erakutsi dionik, eta ezta hainbeste gizemakume bere zerbitzuan jarri dizkionik ere.

Hau ahal dela, eta pasiak pasa, behar du gure herriak Elizagandik begirada arretatsu bat.

Eta gatoz egundalakoak eskatzera: 1) Delako "Cruzada" harrek hil zizkigun hamasei apaizei merezi duten aipamen ofiziala egiteko; ez baitu Elizak oraindik martiri hoi berri eman, ez eta elizkizun nagusirik eratu ere. 2) Nolabait Elizaren mende dauden eskola eta kolejoetan, gure herriaren kulturari, eta batez ere hizkuntzari, Enzikliketan

erakutsi bezala bere babes osoa eman dezaiotela. 3) Gure herriak merezi duen eta behar-behar duen Eliza barruti bat izan dezala lehen bait lehen.

Beste herriak bezala.

Estatu mailako Gobernua gure eskubide batzu aitortzen hasi berri den bezala, Estatu mailako Elizak gureari, euskal Elizari, zor dion begiramena eta justizia egin dezaiola.

Eta lehen bait lehen.

Politikarien atzetik datorrenak, ez du izango aurretik helduko litzatekenak izango luken poza sortuko; aitzitik inork pentsatuko du, eta arrazoi faltarik ez, Elizak neurri hontan politikariak egindako bide errazetik ibili besterik ez duela egin.

Eta, presa dugun hontan, lehen ematen den harek izango du eskerra, esker ona.

Eta Eliza bera esker onaren egarri, nik uste.

Batez ere Euskal Herrian.